## AIARA

**6254**

**Behin betiko onarpena ematea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari.**

Udal honek, 2013ko urriaren 29an egindako osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza aldatzeko espedienteari, eta jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartuta geratzen da. Beraz, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan xedatutakoa betez, osorik argitaratzen da, indarrean jartzeko.

### TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek ordenantza honen arabera eskatzen du trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Tributuaren Foru Arauan ezarritakoari jarraituz.

2. artikulua.

Ordenantza hau udalerri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA GAIA

3. artikulua.

Hauek dira zerga gai:

1. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga zuzeneko tributu bat da kargatzen duena bide publikoan ibiltzeko gai diren eta trakzio mekanikoa duten ibilgailuen titularitatea, edozein mota eta kategoriatakoa dela ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerri honi dagokionean.

2.- Ibilgailua zirkulaziorako gai da baldin eta dagozkion erregistro publikoetan matrikulatuta badago, eta baja eman gabe. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo matrikula dutenak ere zirkulatzeko erabilgarritzat joko dira.

3.- Ondokoak ez daude zerga honen kargapean:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, baldin eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatuetan ibiltzeko baimena eman bazaie.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoiak eta erdiatoiak, 750 kg-tik beherako zama erabilgarria dutenak.

III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. artikulua.

1.- Zergatik salbuetsita daude:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsa edo herritarren babesari atxikitakoak.

b) Beste herrialde batzuetako ordezkari diplomatikoen, kontsul bulegoetako kideen, agente diplomatikoen eta kontsul funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdeko herritarrak badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, eta bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzako ibilgailuak, eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako

## AYALA

**6254**

**Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.**

Habiendo sido aprobado inicialmente por este Ayuntamiento en Sesión Ordinaria celebrada el día 29 de octubre de 2013, el expediente confeccionado para modificar la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y no habiéndose presentado reclamaciones durante el período de su exposición al público, queda definitivamente aprobado. Por lo que a efectos de lo establecido en el artículo 16.4 de la Norma Foral 41/1989 reguladora de las Haciendas Locales, se lleva a cabo su publicación íntegra para su entrada en vigor.

### ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral Reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y en la Norma Foral particular del tributo, exige el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica con arreglo a la presente Ordenanza.

Artículo 2.

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

II. HECHO IMPONIBLE

Artículo 3.

Constituye el hecho imponible del Impuesto:

1.- El Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica es un tributo directo que grava la titularidad de los vehículos de esta naturaleza aptos para circular por las vías públicas, cualesquiera que sean su clase y categoría, cuando el domicilio que conste en el permiso de circulación corresponda a este Municipio.

2.- Se considera vehículo apto para la circulación el que hubiere sido matriculado en los registros públicos correspondientes y mientras no haya causado baja en los mismos. A los efectos de este impuesto también se considerarán aptos los vehículos provistos de permisos temporales y matrícula turística.

3.- No están sujetos a este Impuesto:

a) Los vehículos que habiendo sido dados de baja en los registros por antigüedad de su modelo, puedan ser autorizados para circular excepcionalmente con ocasión de exhibiciones, certámenes o carreras limitadas a los de esta naturaleza.

b) Los remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica cuya carga útil no sea superior a 750 kilogramos.

III. EXENCIONES Y BONIFICACIONES

Artículo 4.

1.- Estarán exentos del Impuesto:

a) Los vehículos oficiales del Estado, la Comunidad Autónoma del País Vasco, Diputación Foral de Álava y de Entidades Municipales, adscritos a la defensa o a la seguridad ciudadana.

b) Los vehículos de representaciones diplomáticas, oficinas consulares, agentes diplomáticos y funcionarios consulares de carrera acreditados, que sean súbditos de los respectivos países, externamente identificados y a condición de reciprocidad en su extensión y grado.

Asimismo, los vehículos de los organismos internacionales con sede u oficina en el Estado Español y de sus funcionarios o miembros con estatuto diplomático.

c) Los vehículos respecto de los cuales así se derive de lo dispuesto en tratados o convenios internacionales.

d) Las ambulancias y demás vehículos directamente destinados a la asistencia sanitaria o al traslado de heridos o enfermos.

e) Los vehículos para personas de movilidad reducida a que se refiere la letra A del Anexo II del Reglamento General de Vehículos,

Ibilgailuen Araudi Orokorraren II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta ezindu baten izenean matrikulatuta badaude.

Era berean, zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira 14 zaldi fiskaletik behera duten, ezinduen izenean matrikulatuta dauden eta eurek bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespen hau egoerak irauten duen artean aplikatuko da, bai ezinduek gidatutako ibilgailuen kasuan, bai ezinduak eramateko ibilgailuen kasuan.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bakoitzari bat baizik ezin zaio aplikatu, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauexek hartuko dira ezindutzat:

a´) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako ezintasuna aitortuta duen pertsona eta mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badago. Horrelakotzat hartuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, ezintasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duenak, bere III. eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C ataletan jaso diren egoeraren batean badago edo aipatutako baremo horretako D, E, F, G edo H ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago baditu.

b’) Ehuneko 65eko edo gehiagoko ezintasuna duten pertsonak.

f) Hiriko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiago dituztenak, gidaria barne.

g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

1-1- Artikulu honen 1. paragrafoko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesdunek eskatu egin beharko dituzte, eta adierazi ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia. Udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

Aurreko 1. paragrafoko e) letraren bigarren paragrafoan jasotako salbuespena dela eta, interesdunak ezintasunaren eta, hala behar izanez gero, mugikortasun urriko egoeraren egiaztagiria aurkeztu beharko du, kasuan kasuko organoak emana. Halaber, justifikatu egin beharko du ibilgailuaren zertarakoa zerga jartzen duen udalaren aurrean, horrek dagokion ordenantzan ezarritako moduan.

2.- Hobariak:

a) Zerga kuotaren ehuneko 100eko hobaria izango dute Ibilgailu historikoen Arautegiak (1247/1995 Errege Dekretua) historikotzat jotako ibilgailu guztiek.

b) Zerga kuotaren ehuneko 25eko hobaria izango dute 5 leku edo gehiagoko ibilgailuek, baldin eta jabea familia ugariko kide bada, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera. Familia ugari bakoitzeko ibilgailu bat baino ez da izango hobaridun.

2.1.- Hobari horiek ez dira inoiz emango ofizioz, eta interesdunak eskaera egin beharko du zergaren sortzapen urtean, eskaerarekin batera hauek aurkeztuz:

- Historiko gisa katalogatutako ibilgailua: ibilgailua historiko gisa katalogatzeari buruz autonomia erkidegoak emandako aldeko ebazpena aurkeztu beharko du jabeak, eta Ibilgailu historikoen Arautegiak, zein uztailaren 14ko 1247/1995 Errege Dekretuak arautzen baitu, ezarritakoarekin bat etorriz egon beharko da matrikulatuta ibilgailua.

-Familia ugariarentzako ibilgailua: Familia ugariaren liburua, edo familia ugaria dela egiaztatzen duen beste edozein agiri, ezaugarri berezien ziurtagiria eta ibilgailuaren zirkulazio baimena.

2.2. Aurreko idatz zatian jasotako hobariak jasotzeko, interesdunek eskatu egin beharko dituzte, eta eskatzen duten ekitaldian sartuko dira indarrean; ez dira barruan sartuko eskaera egin baino lehenagoko kuotak.

aprobado por Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre, matriculados a nombre de personas con discapacidad.

Asimismo, están exentos los vehículos de menos de 14 caballos fiscales, matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo. Esta exención se aplicará en tanto se mantengan dichas circunstancias, tanto a los vehículos conducidos por personas con discapacidad como a los destinados a su transporte.

Las exenciones previstas en los dos párrafos anteriores no resultarán aplicables a los sujetos pasivos beneficiarios de las mismas por más de un vehículo simultáneamente.

A efectos de lo dispuesto en esta letra, se considerarán personas con discapacidad las siguientes:

a´) Aquellas personas que tengan reconocido un grado de minusvalía igual o superior al 33 por ciento e inferior al 65 por ciento que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tales las incluidas en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B o C del baremo que figura como Anexo III del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración o calificación del grado de minusvalía o que obtengan 7 ó más puntos en las letras D, E, F, G o H del citado baremo.

b’) Aquellas personas con un grado de minusvalía igual o superior al 65 por ciento.

f) Los autobuses, microbuses y demás vehículos destinados o adscritos al servicio de transporte público urbano, siempre que tengan una capacidad que exceda de nueve plazas, incluida la del conductor.

g) Los tractores, remolques, semirremolques y maquinaria provistos de Cartilla de Inspección Agrícola.

1-1- Para poder aplicar las exenciones a que se refieren las letras e) y g) del apartado 1 de este artículo, los interesados deberán instar su concesión indicando las características del vehículo, su matrícula y la causa del beneficio. Declarada la exención por la Administración municipal, se expedirá un documento que acredite su concesión.

En relación con la exención prevista en el segundo párrafo de la letra e) del apartado 1, el interesado deberá aportar el certificado acreditativo de la discapacidad y, en su caso, del estado carencial de movilidad reducida, emitido por el órgano competente y justificar el destino del vehículo ante el Ayuntamiento de la imposición, en los términos que éste establezca en la correspondiente Ordenanza fiscal.

2.- Bonificaciones:

a) Se establece una bonificación del 100 por ciento de la cuota del impuesto a todos los vehículos considerados de carácter histórico por el Reglamento de Vehículos Históricos (Real Decreto 1247/1995).

b) Se establece una bonificación del 25 por ciento de la cuota del impuesto para los vehículos de 5 o más plazas, cuya titularidad recaiga en algún miembro de la familiar que tenga la condición de numerosa, de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente. Sólo se bonificará a un vehículo por cada familia numerosa.

2.1.- La obtención de las citadas bonificaciones no se concederán en ningún caso de oficio, debiendo la persona interesada presentar la correspondiente solicitud, dentro del año del devengo del impuesto, a la que deberá adjuntar:

- Vehículo catalogado como histórico: Deberá el propietario aportar la resolución favorable de la Comunidad Autónoma sobre la catalogación de dicho vehículo como histórico y que esté matriculado conforme a lo establecido en el Reglamento sobre Vehículos Históricos, regulada en el Real Decreto 1247/1995, de 14 de julio y además la Ficha Técnica del Vehículo.

-Vehículo para familia numerosa: El Libro de Familia Numerosa, u otro documento acreditativo de la consideración de Familiar Numerosa, además del Certificado de Características Especiales y del Permiso de Circulación del Vehículo.

2.2. Para poder gozar de las bonificaciones descritas en el apartado anterior los interesados deberán instar su concesión, entrando en vigor en el ejercicio de su solicitud y no alcanzando a las cuotas devengadas con anterioridad a esta.

IV.- SUBJEKTU PASIBOAK

5. artikulua.-

Zerga honen subjektu pasiboak dira ibilgailu baten trakzio mekanikoko zirkulazio baimenean titular moduan ageri diren pertsona fisikoak eta juridikoak eta Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako erakundeak.

V.- KUOTA.

6. artikulua.-

1.- Tarifa taula honen arabera eskatuko da zerga:

| POTENTZIA ETA IBILGAILU MOTA | KUOTA EUROTAN |
|---|---|
| A) TURISMOA | |
| 8 zaldi fiskal baino gutxiago | 13,50 |
| 8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartean | 35,50 |
| 12 eta 15,99 zaldi fiskal bitartean | 75,00 |
| 16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartean | 93,50 |
| 20 zaldi fiskaletik aurrera | 122,00 |
| B) AUTOBUSAK | |
| 21 plaza baino gutxiago | 87,00 |
| 21 eta 50 plaza bitartean | 123,50 |
| 50 plaza baino gehiago | 154,50 |
| C) KAMIOIAK | |
| Karga erabilgarria: < 1000 kg | 44,00 |
| Karga erabilgarria: 1000 - 2999 kg | 87,00 |
| Karga erabilgarria: 2999 - 9999 kg | 123,50 |
| 9999 kilogramo baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak | 154,50 |
| D) TRAKTOREAK | |
| < 16 zaldi fiskal | 18,38 |
| 16 eta 25 zaldi fiskal bitartean | 28,89 |
| > 25 zaldi fiskal | 86,67 |
| E) TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEK TIRATUTAKO ATOIAK ETA ERDIATOIAK | |
| Zama erabilgarria 1000 eta 750 kilogramo bitartean | 18,50 |
| Karga erabilgarria: 1000 - 2999 kg | 29,00 |
| Karga erabilgarria: > 2999 kg | 87,00 |
| F) BESTELAKO IBILGAILUAK: | |
| Ziklomotorrak | 5,00 |
| Motozikletak: < 126 $cm^3$ | 5,00 |
| Motozikletak: 125 - 250 $cm^3$ | 8,00 |
| Motozikletak: > 250 eta 500 zentimetro kubiko arte | 16,00 |
| Motozikletak: > 500 eta 1000 zentimetro kubiko arte | 35,00 |
| Motozikletak: > 1000 $cm^3$ | 63,50 |

2.- Ibilgailu mota zehazteko, arautegiz garatu gabe daudenez indarrean dauden arauak, irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Ibilgailua furgonetatzat hartuko da baldin eta turismo bat egokitzen bada garraio mistorako, pertsonak eta gauzak eramateko, dela eserlekuak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz, dela bestelako aldaketak eginez, betiere ibilgailuaren jatorrizko modeloa funtsean aldatu gabe. Furgonetek, potentzia fiskalaren arabera, turismoen zergak ordainduko dituzte, kasu hauetan izan ezik:

Lehenengoa.- Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago eramateko prestatuta badago, gidaria barne, autobusen zerga ordainduko du.

Bigarrena.- Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badauka, kamioiari dagokion karga ezarriko zaio.

b) Zerga honen ondorioetarako, kuatrizikloak motozikleten pareko izango dira, eta, beraz, zilindradaren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, trakzioa duen zatiak eta hark tiratutako atoiak edo erdiatoiak, biek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

IV.- SUJETOS PASIVOS

Artículo 5.-

Son sujetos pasivos de este impuesto las personas físicas o jurídicas y las Entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, a cuyo nombre conste el vehículo en el permiso de circulación.

V.- CUOTA.

Artículo 6.-

1.- El impuesto se exigirá con arreglo al siguiente cuadro de tarifa:

| POTENCIA Y CLASE DEL VEHÍCULO | CUOTA EUROS |
|---|---|
| A) TURISMO | |
| De menos de 8 caballos fiscales | 13,50 |
| De 8 hasta 11,99 caballos fiscales | 35,50 |
| De 12 hasta 15,99 caballos fiscales | 75,00 |
| De 16 hasta 19,99 caballos fiscales | 93,50 |
| De 20 caballos fiscales en adelante | 122,00 |
| B) AUTOBUSES | |
| De menos de 21 plazas | 87,00 |
| De 21 a 50 plazas | 123,50 |
| De más de 50 plazas | 154,50 |
| C) CAMIONES | |
| De menos de 1000 kilogramos de carga útil | 44,00 |
| De 1000 a 2999 kilogramos de carga útil | 87,00 |
| De más de 2999 a 9999 kilogramos de carga útil | 123,50 |
| De más de 9999 kilogramos de carga útil | 154,50D) |
| TRACTORES | |
| De menos de 16 caballos fiscales | 18,38 |
| De 16 hasta 25 caballos fiscales | 28,89 |
| De más de 25 caballos fiscales | 86,67 |
| E) REMOLQUES Y SEMIRREMOLQUES ARRASTRADOS POR VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA | |
| De menos de 1000 kilogramos y más de 750 kilogramos de carga útil | 18,50 |
| De 1000 a 2999 kilogramos de carga útil | 29,00 |
| De más de 2999 kilogramos de carga útil | 87,00 |
| F) OTROS VEHÍCULOS | |
| Ciclomotores | 5,00 |
| Motocicletas hasta 125 centímetros cúbicos | 5,00 |
| Motocicletas de más de 125 hasta 250 centímetros cúbicos | 8,00 |
| Motocicletas de más de 250 hasta 500 centímetros cúbicos | 16,00 |
| Motocicletas de más de 500 hasta 1000 centímetros cúbicos | 35,00 |
| Motocicletas de más de 1000 centímetros cúbicos | 63,50 |

2.- Para la determinación de la clase de vehículo y a falta de desarrollo reglamentario de la normativa existente, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

a) Se entenderá por furgoneta el resultado de adaptar un vehículo de turismo a transporte mixto de personas y cosas mediante la supresión de asientos y cristales, alteración del tamaño o disposición de las puertas u otras alteraciones que no modifiquen esencialmente el modelo del que se deriva. Las furgonetas tributarán como turismo, de acuerdo con su potencia fiscal, salvo en los siguientes casos:

Primero.- Si el vehículo estuviese habilitado para el transporte de más de nueve personas, incluido el conductor, tributará como autobús.

Segundo.- Si el vehículo estuviese autorizado para transportar más de 525 kilogramos de carga útil tributará como camión.

b) Los cuatriciclos tendrán la consideración, a los efectos de este impuesto, de motocicletas y, por tanto, tributarán en función de su cilindrada.

c) En el caso de los vehículos articulados tributarán simultáneamente y por separado el que lleve la potencia de arrastre, los remolques y semirremolques arrastrados.

d) Ziklomotore, atoi eta erdiatoien kasuan, duten edukiera dela-eta matrikulatzeko obligaziorik ez badute, zirkulaziorako gai joko dira Industria Ordezkaritzak dagokion ziurtagiria ematen duen unetik beretik, edo, hala badagokio, zirkulazioan dauden unetik beretik.

e) Makina autopropultsatuek, trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek tiratu beharrik gabe bide publikoetan ibil daitezkeenek, traktoreen tarifen arabera ordainduko dute zerga.

Betiere, Tarifen D) letran azaltzen den “traktore” izendapen orokorraren barruan sartzen dira traktokamioiak eta obra eta zerbitzuetarako traktoreak.

g) Zaldi fiskaletan adierazten den potentzia, indarrean dagoen araudiaren arabera finkatuko da.

h) Karabanek atoiek ordaintzen duten adinako zerga ordainduko dute, karga erabilgarriko kilogramoak zenbat diren.

i) Autokarabanek turismoek adinako zerga ordainduko dute, zenbat zaldi fiskal dituzten.

j) Egokitu daitezkeen ibilgailu mistoek kamioiek ordaintzen duten adinako zerga ordainduko dute, karga erabilgarriko kilogramoak zenbat diren.

VI.- ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

7. artikulua.

1.- Zergaldia urte naturala izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Kasu horietan zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean bertan hasiko da edo Trafiko Buruzagitzan baja ematen den egunean amaitu.

2.- Sortzapena zergaldiko lehen egunean gertatuko da.

3.- Ibilgailu bat lehen aldiz eskuratzen denean, zergaren kuota eskuraketa egunetik abenduaren 31ra arteko aldiaren proportziozkoa izango da, edo eskuraketa egunetik baja eman arteko aldiaren proportziozkoa, kasuan kasukoa.

4.- Ibilgailu bati baja ematen zaionean, zergaren kuota urtarrilaren 1etik Trafiko Buruzagitzan baja eman arteko aldiaren proportziozkoa izango da.

VII.- KUDEAKETA

8. artikulua.

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den herriko udalari dagokio kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, bai eta zerga kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea ere.

9. artikulua.

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua.

Udal administrazioak edo finantza erakunde laguntzaileak emandako ordainagiria izango da zerga ordaindu izanaren egiaztagiria.

11. artikulua.

Ekitaldi bakoitzeko bigarren hiruhilekoan ordainduko da zerga; ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio-eta.

12. artikulua.

Matrikulazio berria bada, edo zergen ondorioetarako ibilgailuaren sailkapena aldatzen duen bestelako aldaketaren bat egiten bada, interesdunek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren matrikulan sartzeko, matrikulatu edo aldaketa egin eta hogeita hamar egun baliodunеko epean:

a) Zirkulazioko baimena.

b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.

c) NANa edo IFZ.

13. artikulua.

1.- Trafiko Burutzari ibilgailua matrikulatzeko, zirkulaziorako gaitasunaren ziurtagiria emateko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko eskatzen diotenek Zerga ordaindu dutela frogatu behar dute aldez aurretik.

d) En el caso de los ciclomotores, remolques y semirremolques, que por su capacidad no vengan obligados a ser matriculados, se considerarán como aptos para la circulación desde el momento que se haya expedido la certificación correspondiente por la Delegación de Industria, o en su caso, cuando realmente estén en circulación.

e) Las máquinas autopropulsadas que puedan circular por las vías públicas sin ser transportadas o arrastradas por otros vehículos de tracción mecánica tributarán por las tarifas correspondientes a los tractores.

f) En todo caso, la rúbrica genérica de tractores a que se refiere la letra D) de las indicadas Tarifas, comprende a los tracto-camiones y a los tractores de obras y servicios.

g) La potencia fiscal del vehículo, expresado en caballos fiscales, se establecerá de acuerdo con lo dispuesto en la normativa vigente.

h) Las caravanas tributarán como remolques en función de los kilogramos de carga útil.

i) Las auto caravanas tributarán como turismos en función de los caballos fiscales.

j) Los vehículos mixtos adaptables tributarán como camiones en función de los kilogramos de carga útil.

VI.- PERIODO IMPOSITIVO Y DEVENGO

Artículo 7.

1.- El periodo impositivo coincide con el año natural, salvo en el caso de primera adquisición o baja de los vehículos. En estos casos el período impositivo comenzará el día en que se produzca dicha adquisición o terminará el día en que se produzca la baja en la Jefatura de Tráfico, respectivamente.

2.- El impuesto se devenga el primer día del periodo impositivo.

3.- En el caso de primera adquisición de vehículos, el importe de la cuota del impuesto será el que proporcionalmente corresponda al tiempo que medie entre la fecha de adquisición y el 31 de diciembre o, en su caso, la de la baja del vehículo.

4.- En el supuesto de baja de vehículos, el importe de la cuota del impuesto será el que proporcionalmente corresponda al tiempo que medie entre el 1 de enero y la fecha de baja del vehículo en la Jefatura de Tráfico.

VII.- GESTIÓN

Artículo 8.

La gestión, liquidación, inspección y recaudación, así como la revisión de los actos dictados en vía de gestión tributaria corresponde al Ayuntamiento del domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo.

Artículo 9.

El Ayuntamiento podrá exigir este impuesto en régimen de autoliquidación.

Artículo 10.

Será instrumento acreditativo del pago del impuesto el recibo expedido por la Administración Municipal o Entidad Financiera colaboradora.

Artículo 11.

El pago del impuesto se efectuará dentro del segundo trimestre de cada ejercicio, salvo que se trate de los supuestos contemplados en el artículo siguiente, en los que se estará a lo que en él se dispone.

Artículo 12.

En caso de nueva matriculación o de modificaciones en el vehículo que altere su clasificación a efectos tributarios, los interesados deberán presentar en la Administración Municipal, con objeto de su inclusión en la Matrícula del impuesto, dentro del plazo de treinta días hábiles desde la matriculación o modificación los siguientes documentos:

a) Permiso de circulación.

b) Certificado de características técnicas.

c) DNI o CIF.

Artículo 13.

1.- Quienes soliciten ante la Jefatura de Tráfico la matriculación, la certificación de aptitud para circular de un vehículo, deberán acreditar, previamente, el pago del impuesto.

2. Ibilgailuen titularrek ibilgailuak eraberritu dituztela adierazten dutenean Trafiko Buruzagitzan, baldin Zergaren ondorioetarako sailkapena aldatu bada, edota ibilgailua eskualdatzen dutenean, ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitza aldatzen dutenean edo ibilgailuari baja ematen diotenean, aldez aurretik Trafiko Buruzagitzari frogatu beharko diote Zerga kobratzean aurkeztutako azken ordainagiria ordaindu dutela. Gainera, kudeaketaren eta ikuskapenaren bidez kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribitu gabeko zor guztiak ordaintzeko eskatu ahal izango zaie. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago ezer frogatu beharrik.

3.- Trafiko Buruzagitzak ez ditu izapidetuko ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak, aldez aurretik zerga ordaindu dela frogatzen ez bada.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua, toki ogasunak aldatu dituena, indarrean jarri aurretik ibilgailu batzuk trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergatik salbuetsita egon dira uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauaren, zerga horri buruzkoaren, 2.1.d) artikuluaren testu zaharrean ezarritakoaren arabera. Ibilgailu horiek ez badute betetzen foru arau horrek finkatutako 2.1.d) artikuluaren testu berrian ezarritakoa, testu zaharreko salbuespena aplikatzeko eskubidea edukiko dute ibilgailuak testu hartan salbuespena aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen dituen bitartean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1.- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza hau indarrean jartzen denetik, indargabetuta geratzen dira bertan dioenaren kontrako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2013ko urriaren 29ko ohiko bilkuran aldatu zen, 2014ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta hala egongo da aldatu edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Arespalditza, 2013ko abenduaren 10a.– Alkate-lehendakaria, JOSU ARTETXE ARANA.

2. Los titulares de los vehículos cuando comuniquen a la Jefatura de Tráfico la reforma de los mismos, siempre que altere su clasificación a efectos de este Impuesto, así como también en los casos de transferencia, de cambio de domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo, o de baja de dichos vehículos, deberán acreditar previamente ante la referida Jefatura de Tráfico el pago del último recibo presentado al cobro del impuesto, sin perjuicio de que sea exigible por vía de gestión e inspección el pago de todas las deudas por dicho concepto devengadas. Liquidadas, presentadas al cobro y no prescritas. Se exceptúa de la referida obligación de acreditación el supuesto de las bajas definitivas de vehículos con quince o más años de antigüedad.

3.- Las Jefaturas de Tráfico no tramitarán los expedientes de baja o transferencia de vehículos si no se acredita previamente el pago del impuesto.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los vehículos que con anterioridad a la entrada en vigor de la Norma Foral 12/2003, de 31 de marzo de modificación de las Haciendas Locales, resultando exentos del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica por aplicación de la anterior redacción del artículo 2.1.d) de la Norma Foral 44/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, no cumplan los requisitos fijados para la exención en la nueva redacción dada por esta Norma Foral a dicho precepto, continuarán teniendo derecho a la aplicación de la exención prevista en la redacción anterior del citado precepto, en tanto el vehículo mantenga los requisitos fijados en la misma para tal exención.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

1.- A partir de la entrada en vigor de la presente Ordenanza reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la misma.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza fue modificada en Sesión Ordinaria, celebrada el día 29 de octubre de 2013 y entrará en vigor a partir del 1 de enero de 2014, permaneciendo en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación expresa.

Respaldiza, a 10 de diciembre de 2013. El alcalde-presidente, JOSU ARTETXE ARANA.

## AIARA

**6255**

**Behin betiko onartzea ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa.**

Udal honek, 2013ko urriaren 29ko ohiko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion ondasun higiezinen gaineko zerga ordenantza aldatzeko espedienteari. Jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartuta geratzen da. Beraz, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan xedatutakoa betez, osorik argitaratzen da, indarrean jartzeko.

### ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Tributuaren Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, ondasun higiezinen gaineko zerga eskatuko du udalak ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak eta ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zatia da.

## AYALA

**6255**

**Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre bienes inmuebles.**

Este Ayuntamiento en Sesión Ordinaria celebrada el día 29 de octubre de 2013 aprobó inicialmente el expediente confeccionado para modificar la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y habiéndose desestimado la reclamación presentada durante el período de su exposición al público, queda definitivamente aprobado. Por lo que a efectos de lo establecido en el artículo 16.4 de la Norma Foral 41/1989 reguladora de las Haciendas Locales, se lleva a cabo su publicación íntegra para su entrada en vigor.

### ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Álava y en la Norma Foral particular del tributo, exige el Impuesto sobe bienes Inmuebles con arreglo a la presente Ordenan za, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen la tarifa aplicable y el período de recaudación.